| 2024-2025 **IKASTURTEA** | **KIDEGORA SARTZEKO AUKERATZE PROZEDURA**<br>○ **Maisu-maistrak**<br>○ **Bigarren Hezkuntzako irakasleak**<br>○ **HEOeko irakasleak**<br>○ **Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak**<br>○ **Lanbide Heziketako irakasleak** | **IRAKASKUNTZA PRAKTIKAK BALORATZEKO TXOSTENA** |
|---|---|---|

# TUTOREAREN TXOSTENA

**PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAREN IZEN-DEITURAK**

**ETAKO ALDIA, HILABETETAN**

**IKASTETXEA**

**ESPEZIALITATEA**

**HERRIA**

**LURRALDEA**

## *ADIERAZLEAK ETA MAILAK*

| **1.- IKASTETXEA ANTOLATU ETA KUDEATZEKO AGIRIAK EZAGUTZEA** | |
|---|---|
| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
| **1.1.-** Ikastetxea antolatu eta kudeatzeko agiriak ezagutzen ditu. Erreferentziatzat jo eta erabiltzen ditu irakaskuntza-jarduera antolatzeko orduan. | **1.2.-** Interes eskasa du ikastetxea antolatu eta kudeatzeko agiriak ezagutzeko. Administrazio-dokumentazio hutsa direla uste du, haren lan pedagogikoan erabilgarritasunik ez dutenak. |
| **OHARRAK** | |


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 2.- IRAKASKUNTZA TALDEKO KIDE GISA KOORDINATU ETA ERA AKTIBOAN LANKIDETZAN ARITZEA

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **2.1.-** Etengabe eta behar bezala ari da esku hartzen duen talde-geletako irakasle-taldearekin lankidetzan eta koordinazioan eta irakatsi eta ikasteko prozesuan irakasleen jarduerak koherenteak eta osagarriak izateko ematen du laguntza.<br>Era aktiboan hartzen du lan-taldeetan parte, proposamenak egiten ditu eta akordioak errazago hartzeko ematen du laguntza. | **2.2-** Ez da behar bezala lankidetzan eta koordinazioan ari esku hartzen duen talde-geletako irakasle-taldearekin. Ez da beti kide den talde-gelako lan-taldeen bileretara joaten eta, joaten denean, jarrera pasiboa eta ez oso eraikitzailea du. |

**OHARRAK**

## 3.- IRAKASKUNTZA PRAKTIKAREN PLANIFIKAZIOA

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **3.1.-** Ikastetxearen curriculum-proiektuaren irizpideen eta departamentuak, zikloak edota beste koordinazio-egitura batzuek adostutakoen arabera planifikatu eta programatzen du talde-gelako irakatsi eta ikasteko prozesua (garatu beharreko gaitasunak, helburuak, jarduera metodologikoak, baliabideak, ebaluatzeko adierazle eta prozedurak, … ).<br>Planifikazio horretan ingurunearen ezaugarriak, ikasleen ezaugarriak, premiak, ezagutzak eta zailtasunak eta izango diren egoerei aurre egiteko aldez aurretik behar diren kontzeptuak hartzen ditu kontuan. Ikasteko erritmo desberdinei ematen die arreta eta tratamendu inklusibo bat sartzen du hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat, haien ezaugarrien arabera eta espezialistek emandako orientabideak kontuan hartuta. Behar bezalako laguntza ematen du NCE (ACI ) egiteko prozesuan. | **3.2.-** Haren programazioa ez dator ikastetxearen curriculum- eta hezkuntza-proiektuarekin edo kide den koordinazio-egiturek adostutako irizpideekin bat.<br>Ez ditu oinarrizko planifikazioaren elementu batzuk sartzen (batzuetan, edukiak edo jarduerak denboran zehar banatzera mugatzen da). Ez du testuingurua ondo kontuan hartzen, ez da taldearen ezaugarri eta premietara egokitzen eta ez die ikasleen ikasteko erritmo eta era desberdinei kasurik egiten. Ez da tratamendu inklusiborik sartzen hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat, haien premien araberakoa, eta ez ditu espezialisten orientabideak kontuan hartzen. Behar denean, ez du laguntzarik ematen NCEak (ACI) egiteko prozesuan. |

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **3.3.-** Planifikatutako ebaluazio-prozedurak etapara edo hezkuntza-ziklora egokitzen direnak dira eta etengabeko ebaluazioa eta ebaluazioaren objektibotasuna bermatzen dituzte. Batez ere, prestakuntza-izaera dute. | **3.4.-** Ez ditu ebaluatzeko prozedurak planifikatzen edo prozedura horiek ez dira etapari edo hezkuntza-zikloari dagozkionak, ez dituzte etengabeko ebaluazioa eta ebaluazioaren objektibotasuna bermatzen eta ez dute prestakuntza-izaerarik. |

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 4.- IRAKASKUNTZA PRAKTIKA GELAN

○ GAI ○ EZ GAI

**4.1.-** Klaseak, jarduerak eta materialak zehatz-mehatz prestatzen ditu. Ordenatua eta sistematikoa da. Gelako saioan programazioari lotzen zaio baina behar den malgutasuna du, ikasteko prozesua errazten duen edozein egoeraz edo zirkunstantziaz baliatzeko orduan. Argi du ikasleei proposatzen dien jarduera bakoitzarekin lortu nahi duen helburua.

**4.2.-** Ez du klasearen garapena aldez aurretik planifikatzen, jarduerak era desordenatuan eta sistematizaziorik gabe planteatzen ditu eta ez ditu ikasteko helburu konkretuekin lotzen.

○ GAI ○ EZ GAI

**4.3.-** Erabiltzen duen metodologiak gaitasunen garapena sustatzen du, ikasleen ezaugarrietara eta ikasteko erritmo desberdinetara egokitzen da, ikasleen ikasteko motibazioa bultzatzen du eta autoebaluazioa eta ikasteko prozesuaren kontrola sustatzen ditu ikasleen artean.

**4.4.-** Gelan erabiltzen duen metodologiak ez die behar bezalako erantzunik ematen talde-gelako ikasleen ezaugarri eta premiei, ez ditu ikasleen ikasteko erritmo desberdinak kontuan hartzen eta ez du oinarrizko gaitasunak garatzeko laguntzarik ematen. Ez ditu ikasleen motibazioa sustatzen duten eta ikaskuntzak esanguratsuak izateko lagungarri diren estrategia metodologikoak planteatzen.

○ GAI ○ EZ GAI

**4.5.-** Proposatzen dituen jarduerak anitzak dira, estrategia intelektual desberdinak erabiltzea sustatzen dute eta talde-gelan ikasteko era desberdinak hartzen dituzte kontuan. Ikasleentzat esanguratsuak eta funtzionalak izateko moduan planteatzen ditu ikaskuntzak.

**4.6.-** Proposatzen dituen jarduerak ez dira anitzak eta ez dira ikasleen ikasteko era desberdinetara egokitzen.

○ GAI ○ EZ GAI

**4.7.-** Gelaren antolaketak ikaskuntza kooperatiboa, berdinen arteko ikaskuntza, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzen ditu.

**4.8.-** Gelaren antolaketak ez du ikaskuntza kooperatiboa laguntzen eta ez die ikasleei parte hartzeko erraztasunik ematen.

○ GAI ○ EZ GAI

**4.9.-** Ikasteko giro egokia du. Gelan sortzen diren gatazkak kudeatzen ditu. Horretarako, prozedura desberdinak erabiltzen ditu eta ez da diziplina-neurri hutsak aplikatzera mugatzen. Gatazka-egoerak ikasteko aukera gisa, portaera desegokiak bideratze aldera, hartzen ditu. Talde-gelan elkarbizitza kudeatzeko irakasle-taldeak adostutako akordio, proposamen edo irizpideak hartzen ditu kontuan.

**4.10.-** Zailtasunak ditu gelan behar bezala ikasteko giroa sortzeko orduan. Sarritan laguntza behar izaten du, gatazkak behar bezala kudeatzeko. Diziplina-neurriei ematen die lehentasuna eta ez ditu, ikasleen adina eta ezaugarriak eta gertaeren larritasuna kontuan hartuta, behar bezala egokiak izan daitezkeen beste neurri batzuk hartzen. Oso begirune gutxi die irakasle-taldeak edo ikastetxeko kide anitzeko beste organo batek, gelan elkarbizitza kudeatzea dela-eta, hartu dituen akordioei eta ez du laguntzarik ematen akordio horiek martxan jartzeko orduan.

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 5.- EBALUAZIOA ETA IKASLEEN JARRAIPENA

| ◯ GAI | ◯ EZ GAI |
|---|---|
| **5.1.-** Araudi orokorraren eta ikastetxearen araudi partikularraren araberako irizpideak erabiltzen ditu erreferentzia gisa irakaskuntza-praktikan, ikasleak ebaluatzeko, kalifikatzeko eta beste kurtso batera igarotzeko orduan. Ikasle edota familiei ematen die irizpide horiei buruzko informazioa. | **5.2.-** Ez ditu ikasleak ebaluatzeko, kalifikatzeko eta beste kurtso batera igarotzeko irizpideak definitzen, edo irizpide horiek ez dira araudi orokorrera eta ikastetxearen araudi partikularrera egokitzen, eta ikasle eta familiei ez zaie informaziorik ematen. |
| ◯ GAI | ◯ EZ GAI |
| **5.3.-** Ikasleen ikaskuntzak ebaluatzeko erabiltzen dituen prozedurak (teknikak, tresnak, denborak, … ) arlora eta ikasleen ezaugarrietara egokitzen dira, objektibotasuna bermatzen dute eta ebaluazioaren prestakuntza-izaera sustatzen dute. | **5.4.-** Erabiltzen dituen ebaluatzeko prozedurak (teknikak, tresnak, denborak, … ) ez dira hezkuntza-mailara eta talde-gelako ikasleen tipologiara egokitzen eta ez dituzte ebaluazioaren objektibotasuna eta prestakuntza-funtzioa bermatzen. |
| ◯ GAI | ◯ EZ GAI |
| **5.5.-** Era objektibo eta sintomatikoan jasotzen du ikasle bakoitzak, etengabeko ebaluazioaren arabera, lortutako ikaskuntzan gertatu den aurrerapena. Ikasleek emaitza positiboak lortu ez badituzte, laguntzeko prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditu. | **5.6.-** Ia ez du ikasle bakoitzak, etengabeko ebaluazioaren printzipioen arabera, lortutako ikaskuntzen jarraipenik egiten eta ez ditu emaitza horiek era objektiboan eta sistematikoki jasotzen. Ez ditu laguntzeko eta berreskuratzeko prozeduren aplikazioa kontuan hartzen. |
| ◯ GAI | ◯ EZ GAI |
| **5.7.-** Talde-gelan lortutako emaitzen arabera, hobekuntzak sartzen ditu irakatsi eta ikasteko prozesuan. | **5.8.-** Ez ditu ikasleen emaitzak analizatzen eta ez du kontuan hartzen, lortutako emaitzen arabera, irakatsi eta ikasteko prozesuan hobekuntzak sartzeko aukerarik. |
| ◯ GAI | ◯ EZ GAI |
| **5.9.-** Komunikazio arina du ikasle edota familiekin (eta, behar izanez gero, talde-gelako tutorearekin), ikaskuntzan izandako aurrerapenen berri emateko eta laguntzeko argibideak ematen ditu, emaitzak hobeak izan daitezen. | **5.10.-** Komunikazio eskasa du familiekin (eta, behar izanez gero, talde-gelako tutorearekin), eta ez die ikasleen ikaskuntzan izandako bilakaerari buruzko informaziorik ematen. |

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 6.- TUTORETZA ETA ORIENTABIDEA

○ **GAI** ○ **EZ GAI**

**6.1.-** Ikastetxearen tutoretza-jarduneraren planean ezarrita dagoen legez, talde mailako tutoretzaren edukia garatzen du tutorea den taldean, edo, plan horretan xedatutakoaren arabera, laguntza ematen dio /die klasea ematen duen taldeko /taldeetako tutoreari /tutoreei.

**6.2.-** Ez du, ikastetxearen tutoretza-jarduneraren planean ezarritakoaren kontra, behar bezala garatzen talde mailako tutoretzaren edukia edo ez die klasea ematen duen taldeetako tutoreei laguntzarik ematen.

○ **GAI** ○ **EZ GAI**

**6.3.-** Koordinatzen da bere tutoretzako edo klasea ematen duen taldeetako ikasleekin esku hartzen duten gainontzeko irakasleekin.

**6.4.-** Ez da behar adina koordinatzen klasea ematen duen taldeetan esku hartzen duten gainontzeko irakasleekin.

○ **GAI** ○ **EZ GAI**

**6.5.-** Kohesioa lortzeko, pertsonen arteko harremanak hobetzeko eta eskola-giroa ona izateko, tutorea den taldearekin egiten du lan, ikasle bakoitzari ematen dizkio orientabidea eta laguntza.

**6.6.-** Arreta eskasa jartzen du tutorea den taldeko ikasleei laguntza eta orientabidea emateko lanetan. Ez du taldean koherentzia izateko laguntzarik ematen eta ez du behar bezalako eskola-giroa sustatzen. Talde-gela bateko tutorea ez bada, ez du, ikasle guztiei begira, tutoretza-lana bere gain hartzen eta laguntza eskasa ematen die klasea ematen duen taldeetako tutoreei.

**OHARRAK**

## 7.- FAMILIEKIKO HARREMANA

○ **GAI** ○ **EZ GAI**

**7.1.-** Trebetasun sozialak erakusten ditu pertsonen arteko harremanetan. Ikasle eta familiek dute harengan konfiantza. Alde akademiko eta humanoari begira, ikasle eta familiek haren gaitasun profesionala baloratzen dute.

**7.2.-** Arazoak ditu familiekin harremanak izateko orduan. Ikasle eta familiek ez dute harengan konfiantzarik.

○ **GAI** ○ **EZ GAI**

**7.3.-** Prestutasuna agertzen du familiei arreta emateko, informatzeko eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren berri emateko orduan. Familien parte-hartzea errazten du.

**7.4.-** Prestutasun gutxi agertzen du, familiei arreta emateko, informatzeko eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren berri emateko orduan.

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 8.- PRAKTIKARI, AUTOEBALUAZIOARI ETA PRESTAKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **8.1.-** Jarduera profesionala aztertu eta ebaluatzen du irakatsi eta ikasteko prozesuaren une desberdinetan eta prozesu hori hobetzeko estrategiak ezartzen ditu. Beste irakasle batzuekin batera hartzen du irakaskuntza-autoebaluazioaren prozesuetan parte hartzen. | **8.2.-** Haren irakaskuntza-praktikari buruz hausnarketa egiteko interes falta. Uzkur da, irakaskuntza-autoebaluazioaren jardueretan parte hartzeko orduan. |

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **8.3.-** Haren prestakuntza gaurkotzeak kezkatzen du. Berriztapen-jardueretan edo ikastetxean adostutako hezkuntza-programetan parte hartzen du eta laguntza ematen du programa horiek aurrera eraman eta gauzatzeko prozesuan. Haren praktika onak partekatzen ditu eta beste profesional batzuenetatik ikasten du. | **8.4.-** Ez du haren prestakuntza gaurkotzeko eta berriztapen-jardueretan edo hezkuntza-programetan parte hartzeko interes handirik erakusten. Ez du behar adina parte hartzen ikastetxean proposatzen diren berriztapen-jardueretan, ezta laguntza eman ere. Uzkur agertzen da ikastetxeko beste profesional batzuen praktika onetatik ikasteko orduan eta, batzuetan, begirune gutxi die erabiltzen dituenak ez diren estrategia metodologikoei. |

**OHARRAK**

| |
|---|
| |


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

# *BALORAZIOAREN OINARRI DIREN ELEMENTU ETA DOKUMENTAZIOA*

| | |
|---|---|
| IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA | ☐ |
| IKASTETXEAREN KURRIKULUM PROIEKTUA | ☐ |
| BIZIKIDETZA PLANA | ☐ |
| IKASTETXEAREN URTEKO PLANA | ☐ |
| ARLO, MAILA, ESPEZIALITATEKO PROGRAMAZIOAK | ☐ |
| AJA | ☐ |
| EED | ☐ |
| TUTORETZA PLANA | ☐ |
| KLAUSTROEN AKTAK | ☐ |
| HUTSEGITEEN PARTEA ETA KONTROLA | ☐ |
| KOORDINAZIO, IRAKASLE-TALDEA, MAILA, MINTEGIA EDOTA BESTELAKO BATZARRAK | ☐ |
| EBALUAZIO SAIOEN AKTAK | ☐ |
| IRAKASLEAREN EGUNEROKO JARDUEREN BEHAKETA | ☐ |
| KLAUSTRO NAHIZ ORGANO KOLEGIATUETAN PARTE HARTZEA | ☐ |
| IKASTETXEKO NAHIZ KANPOKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE-HARTZEA | ☐ |
| IKASLEEN TUTORETZA EDOTA ORIENTABIDETZARAKO BILERETAN PARTZE-HARTZEA | ☐ |
| IKASLEEKIKO TUTORETZA SAIOAK | ☐ |
| FAMILIEKIKO BILERAK | ☐ |
| BESTE BATZUK (Zehaztu) | |

____ **-(e)n,** ____ **-(e)ko** ____ **-ren** ____ **-(e)an**

**Tutorea**

**Izpta.:** ____

(Sinadura eta zigilua)



Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus